14 URTETIK AURRERA

HEARTSTOPPER

1. BI MUTILEN ENKONTRUA
2. ZU ETXERAKO!

Gidoia eta irudiak: **Alice Oseman**
Itzulpena: **Naroa Zubillaga**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2024
Kolorea. Paper-azala
1. liburua: 288 orrialde. 15 x 23 cm. 17 euro
2. liburua: 320 orrialde. 15 x 23 cm. 17 euro
Txikiberri bilduma
ISBN 1. liburua: 978-84-10332-08-9
ISBN 2. liburua: 978-84-10332-09-6

SALGAI ABENDUAREN 5EAN

Alice Osemanen sail **ezaguna**, orain, euskaraz. *The Bookseller* aldizkariaren arabera, lan **"erromantikoa, zintzoa eta, gainera, argigarria".** Netflixek ikus-entzunezko egokitzapenaren hirugarren denboraldia estreinatu berri du.

Irakurle gazteentzako nobela grafiko garaikiderik ezagunena

Bi mutilek elkar ezagutzen dute, lagun egin eta maitemindu egiten dira. Zailtasun berezirik gabeko gertaera bat da, baina badakigu bizitza ez dela horrelakoa. Are gutxiago 14 eta 16 urte bitartean badituzu. Nick eta Charlie institutu berera doaz, mutilen ikastetxe batera. Egun batean, elkarren ondoan eseri beharko dute klasean, eta berehala ohartuko dira ondo moldatzen direla. Charlie, ordea, Nickekin maiteminduko da, eta Nick heterosexuala da. Tao da Charlieren

lagunik onena, eta hark abisatzen dio, bai, Charlieri, kontua ez dela ondo aterako… non eta Nicki ere Charlierenganako sentimenduak sortzen ez zaizkion. Eta halaxe gertatuko da. Nick nahasita sentituko da ustekabeko sentimendu horiekin, ordura arte neskak bakarrik gustatzen baitzitzaizkion. Ez du Charlie mindu nahi, baina denbora behar du zer gertatzen zaion eta zer egin nahi duen ulertzeko. Eskerrak biek ere ikusiko duten badituztela inguruan entzuteko prest dauden pertsonak.

Heartstopper fenomenoak badu, azkenean ere, euskarazko edizioa. Gaur egun horren ezaguna den sail hau sareko plataformatan argitaratu zen lehenik, eta 13 milioi pertsonak baino gehiagok irakurri zuten; ondoren, Kickstarter web orrian plazaratu zen, eta hor ere arrakasta: helburutzat zuten diru kopurua baino bost aldiz gehiago bildu zuten bi orduan bakarrik. Halaxe, Hachette UK argitaletxeak paperean argitaratu zuen, eta mundu osora zabaldu zen: 2024 arte 39 hizkuntzatara itzuli da eta zortzi milioi kopia baino gehiago saldu ditu. Azkenik, Netflixerako ere egokitu dute (2024ko urrian estreinatu zen hirugarren denboraldia Espainian). Egileak berak egin du egokitzapena, atalen gidoiak idatzi eta seriea ekoizten baitu. Gaur gaurkoz, bost liburuk osatzen dute *Heartstopper,* eta seigarren batek itxiko du saila, aurreikuspenen arabera, 2026an.

“Institutu garaian eduki nahi izango genukeen nobela grafiko queer-a”.

Gay Times

“Sail hau edertasun eta arreta handiz egina dago, erromantikoa, zintzoa eta, gainera, argigarria da”.

The Bookseller

ALICE OSEMAN (Kent, Ingalaterra, 1994) komikigile saritua da, idazlea, ilustratzailea eta gidoilaria. Bera da *Heartstopper* komiki-sailaren sortzailea. Sei alek osatzen dute saila, bertan LGBTQI+ giroko erromantzeak lantzen dira irakurle nerabeentzat, eta dagoeneko zortzi milioi kopia baino gehiago saldu dira munduan eta 39 hizkuntzatara itzuli dituzte. Oseman bera aritu da Netflixentzat egindako ikus-entzunezko egokitzapenaren gidoilari eta ekoizle. Osemanen liburuek hainbat sari irabazi dituzte edo hainbat saritarako aukeratu eta izendatu dituzte, besteak beste, YA Book Prize, Inky Awards, Carnegie Medal eta Goodreads Choice Awards sarietarako. Astiberriri esker, 2024an *Hearstopper* saileko lehen bi liburukiak ditugu euskaraz: *Heartstopper 1. Bi mutilen enkontrua* eta *Heartstopper 2. Zu etxerako!*.

Ikustagun noren ondoan jarri zaitudan ...
A, bai! Hortxe zara...
Nicholas Nelsonen ondoan.
4. mailakoa da, zu baino urtebete bakarrik zaharragoa!


TAUPA
HEARTSTOPPER
TAUPA